

## a.4 OINARRI-OINARRIZKO HIZTEGIA ETA HAINBAT EGITURA

### > Aginduak



### - Hiztegi birpazarako fitxak

#### Helburuak

- Ikasitako hiztegia birpazatzea: aginduak.
- Idatzizkoan erreparatzea.
- Hitzekin jolas egitea.
- Egon litezkeen gabeziak detektatzea.

#### Prozedura

- Hezitzaileak aukeratu behar du umeei fitxa guztiak bete behar dituzten edo ez.
- Umeei fitxak banatu eta ariketa bakoitzean zer egin behar den azaldu:
  - **Osatu:** Marrazki bakoitzaren izenean falta diren hizkiak idatzi beharko dituzte.
  - **Elkartu marrazkia eta hitza gezi batekin:** irudiak izenekin lotu beharko dituzte.
  - **Borobildu eta idatzi:** irudiari dagokion izena borobildu eta idatzi beharko dute.
  - **Hizki bakoitza bere lekura:** hodei barruan dauden hizkiak zein marrazkiri dagozkien erabaki eta irudiaren azpian ordenan idatzi beharko dute.
  - **Gurutzegramak:** irudi bakoitzari zein hitz dagokion erabaki eta laukietan idatzi beharko dituzte.
  - **Hizki zopa:** landutako hitzak hizkien artean aurkitu eta borobildu beharko dituzte.

#### Oharra

- Umeei ez dituzte zertan fitxa guztiak bete. Hala ere, hizki zopa birpazarako oso ariketa egokia da.